

Aktibatu egin dugu elur protokoloa (2016-02-15)

2016/02/15

Gaur arratsalderako eta biharko Euskalmetek Euskal Autonomi Erkidegoan elur-kota 400 metrora edo gutxiagora jaistea espero duenez, MONDRAGON UNIBERTSITATEAk **abian jarri du elurteetan jarduteko protokoloa.**

Hala ere, aurrez aurreko eskolak bertan behera uzteko irizpideak betetzen ez direnez, **gaur, otsailak 15, astelehena, arratsaldeko eskolak normaltasunez emango dira.**

Arratsaldeko 18:00etan emango da jakitera webgune honetan eta Twitter eta Facebook kontuan biharko, asteartea otsailak 16, eskolei buruzko erabakia.

